

ARAMA ZAITEZ

9.zenbakia

2015eko ekaina/uztaila



ARAMAKO BERREIN BOLETINA

Aurkezpena

Herritarrok,

Iritsi zaigu udaleko eta herri inguruko albisteei buruz berri ematen digun Arama Zaituz aldizkariaren 9. alea.

Hasteko, udaleko oharrekin jakitun izango zarete, ekainaren 22an hasi eta uztailaren 23ra arte, Aramako eta Alzagako haurrak izango ditugula udalekuetan, beraz 5 astetan zehar herrian izango ditugu inguruko haur eta gazte-
txoak.

Aldizkarian murgilduta, uztaileko udalak antolatutako jubilatuen txangoari buruzko aurrerapena eta Goierriko Jazaldia-aren prentsa oharrarekin batera aurtengo kartela dituzue gure orrietan.

Ale honetan, gure herrian amaitutako saneamendu obren informazioaz gain betiko atalak ez digute huts egin eta Toki Alai jatetxetik Anne-ren beste

erezeta goxo-goxo bat duzue prestatzeko. Eta ez ahaztu gure lehiaketan parte hartzeaz.

Animo!!

Bukatzeko, aldizkarian parte hartu nahi baduzue edo proposamen bat egin animatu eta idatzi.



Bisitatu www.arama.eus web orria. Bertan udaleku informazioa guztia duzue.

Espero dugu zuen gustukoa izatea!

Agenda

UZTAILAK 3-4 **Goierriko Jazzaldia 2015**

UZTAILAK 9 **Iluntzeko 21:00etan, Iriarte aretoan GURE ESKU DAGO ekimanaren alde elkarteratzea.**

UZTAILAK 11 **Jubilatuen txangoa**

UDALEKU IREKIAK 2015

Arama eta Altzagako udalek antolatu duten 2015 UDALEKU IREKIAK **ekainaren 22an hasi eta uztailaren 23ra arte luzatuko dira**. Udalekuak goizeko 10etatik 13etara izango dira eta bertan parte hartzen dutenek, aukera izango dute jarduera ludiko hezigarriez gozatzeko. Honen bitartez, jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi zaie haurrei, bere gozamerako eta autonomla pertsonala finantzatzeko.

Aurtengo udalekuetan 29 haurrek eman dute izena eta adinaren arabera 2 taldetan banatuta egongo dira eta talde bakoitzean 2 begirale egongo dira.

3-6 urte bitarteko taldean

MAIDER UNANUE ETA OLATZ UNANUE

7-11 urte bitarteko taldean

ANDER ZUFIRIA ETA HARRITXU MUXIKA

Helburuak

- ♦ **EUSKAL KULTURA BULTZATZEA**
- ♦ **NATURAREKIKO HARREMANA SUSTATZEA**
- ♦ **ONDO PASATZEA!!!**

Aurreko helburuak betez, garrantzitsuenak umeak udaldi zoragarri bat igarotzea da.



JUBILATUEN TXANGOA—UZTAILAK 11

Uztailaren 11ean, Aramako Udalak, Arama eta Altzagako jubilatuentzako, Pasai San Pedron dagoen **ALBAOLA ITSAS KULTUR MUSEOA** bisitatzeko txangoa antolatu du. **Bisita gidatua izango da.**

Goizean, 9:30etan autobusa Aramatik irtengo da eta hamaiketako egin ondoren, Pasaiko itsas kultur faktorian, San Juan Baleontzia erakitzen den, XVI.mendeko galeoi baten erreplika historikoa bisitatu da. Bertan erakusketak eta artesauak lanean ikusteko aukera dago.



IZENA EMATEKO

- ◆ Etxeetara bidali dugun oharrean, beheko aldean zuen izena jarri eta buzoian utzi dezakezue.
- ◆ Udaletxeko 943 880739 telefono zenbakira deituta.
- ◆ Udal bulegoan.

EGINDAKO LANAK

Aramako udalak Girder Ingenieritza enpresak erredaktatutako saneamendu proiektuko atal desberdinak burutu ditu:

- ◆ **Etxeberri**
- ◆ **Jauregi**
- ◆ **Herri gunea**
- ◆ **Ibares**
- ◆ **Industrialdea**

2014ko urriaren 28an egindako udal batzarrean Agerre-Mendizabal baserrietako saneamendu sarea burutzeko lanak Lurkide Hondalanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion. Obrak azaroan hasi ziren eta maiatzean amaitu dira.

Obraren esleipena 68.226,15 euro izan zen, eta obraren likidazioa 73.618,51 euro. Foru Aldundian gastuak finantzatzeko 29.070,64 eurotako dirulaguntza eman du.

Obra hau gauzatzekoan, aipatu baserrietako gasaren kanalizazioa sartzeko aprobetxatu da.

Saneamendu proiektuko atal guztiak amaitzeko Arsuaga baserriko kanalizazioa egitea falda da, eta obra hau 2015ean egitea aurreikusten da.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
		1 08:50 Ilgora	2 Ilbetea	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14 06:20 Ilbeherra	15	16 Ilberria	17	18	19
20	21	22	23 ○	24	25	26
27	28 19:32 Ilgora	29	30	31 Ilbetea		

Babespean / Negutegian: Baina, azenorioa

EREN

Aire librean: Baina, erremolatxa gorria, azelga, azenorioa, arbia, apioa, eskarola

Aire librean: Azelga, erremolatxa gorria, porrua, lonbarda, bruselako aza, aza, azalorea, brokulia, espinaka, letxuga, borraja, atxikoria, alkaxofa

LANDATU

Egun egokienak lan bakoitzerako:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...

Sustrai: azenario, arbi, erremolatxa, patata, tipula...

Lorea: lorea, girasola, brokuli...

Ostoa: letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka

ATSEDENA

Beste lanak:

Fruitarboleitan udako kimaketa egin.

Ureztaketara zaindu, ahal dela iluntzetan egin. Egutero ureztatzea baino, 2-3 egunetan behin ondo bustitzea hobe da, bestela landarearen sustraiek lur azalean geratzeko joera izaten dute eta lehortearekiko ahulagoak izango dira.

Ureztatzerakoan saiatu hostoak ez bustitzen ondoek arazoak sortzea eragozteko.

Normalean izurriteek ez dute lan haundirik ematen. Hala ere, lehen kimu berriak zaindu eta pulgoia egon ezkeru xaboi potasarekin tratatu.

Hilabete honetan, neguan jasoko ditugun barazkiak landatzen dira. Irailak 15 arte denbora daukagunez, hasi poliki-poliki landaketa piskanaka egiten.

Belarra ontzeko garai negurako erreserba egiteko.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24/31	25	26	27	28	29	30
	05:42 Ilogora				Ilbetea	

EREN
 Babespean / Negutegian: Azenorioa, baina
 Aire librean: Azenorioa, arbia, eskarola, espinaka, borrajaBabespean / Negutegian: Azenorioa, baina

LANDATU
 Babespean / Negutegian: Azelga
 Aire librean: Azelga, erremolatxa gorria, porrua, aza, azalorea, brokulia, espinaka, letxuga, eskarola, borraja, atxikaria, alkatofo

Egun egokienak lan bakoitzerako:**Fruitua:** tomatea, kalabaza piper, babarrun, hazitarakoak...**Sustraria:** azenario, arbi, erremolatxa, patata, tipula...**Lorea:** lorea, girasola, brokuli...**Ostoa:** letxuga, porrua, eskarola, aza, espinaka...**ATSEDENA****Beste lanak:**

Fruitarboletan begiko txertaketak egin ditzaizkegu.

Baratzen uzta garacia da. Beroarekin azkar helduko dira barazkiak eta argi ibili haundiegia egin edo pasa ez daitezten.

Neguko landaketarekin jarraitzen dugu.

Aldatutako landareak ongi haziko direla bermatzeko, ondo zaindu behariko ditugu, batetik, simaurketa, eta bestetik, eta batez ere, ureztapena lehen hazkuntza faseetan ur

eskasiki muartu ezin dezake bere etorkizuneko ararrena: brokuli edo azalore on bat lortzeko esaterako.

Tomatearekin jarraitu indartzeko tratamenduak ematen eta porruan eta azakietan kontuz hartarekin.

Aberreak larrean dabilitza, ikulituak garbitzeko aprobetxatu.

Goierriko Jazzaldia 2015

ARAMA JAZZ

UZTAILAK 3 OSTIRALA

Plaza nagusiko eszenatokian

SECUNDINO ESNAOLA BIG BAND // 19:00TAN - PLAZA NAGUSIAN // Ordizia

Sugaar eszenatokian

GIRLS IN BAND // 23:00TAN - D'ELIKATUZ ZENTROAN // Ordizia

UZTAILAK 4 LARUNBATA

Aramako parkeko eszenatokian

SWINGPAPERS (MUSIKENE) // 18:00TAN - PARKEAN // Arama


EVA FERNÁNDEZ GROUP // 19:30TAN - PARKEAN // Arama

Bench eszenatokian

ELKANO BROWNING CREAM // 23:00TAN - BARRENA PARKEAN // Ordizia

DJ MAKALA // 00:30TAN - BARRENA PARKEAN // Ordizia

SARRERA ETA AUTOBUSA DOHAINIK

 Goierriko Jazzaldia

Iritsi da uztaila aurten ere, eta uztailarekin batera jazz-a datorkigu Goierri aldera. Goierriko Jazzaldia **uztailaren 3 eta 4**-ean ospatuko da Aramako eta Ordiziako udalerrietan. Pixkanaka pixkanaka, jazzaldia berezko nortasuna lortzen ari da eta bi edizioaren ondoren, bailarako kultur agendan presentzia geroz eta haundiagoa lortzen ari da. Azken hilabete hauetan, antolakuntzak gogotik lan egin du egitarau on bat eskaintzeko. Orain, egitaraua itxia dagoen momentu honetan, antoltzaileek aurrikuspenak beteko direla espero dute.

laz bezala, aurtengo jazzaldia uztailaren 3an, ostiralarekin, hasiko da, Ordizian. Arratsaldeko 7-etan, plaza nagusian, Secundino Esnaola Big Band-ek emango dio hasera Goierriko Jazzaldia 2015-eko edizioari. Big band hau Ordiziako Edorta de

Pedro-k zuzentzen du, eta beren musikarekin herriko kaleak musika alaiarekin pozteaz gain, jazz-aren festa hasten dela iragarriko dute.

Gaueko 11-etan, jazzaldiak D'elikatuz gunean jarraituko du Girls in Band taldearekin. Talde hau Elsa Lizundia, Elisabet Raspall, Queralt Camps eta Lucía Martínez-ek osatzen dute. Beraiek sorturiko musika eskaintzeaz gain, Miles Davis edo John Coltrane bezalako erreferentzia klasikoak ere erabili ohi dituzte kontzertuetan. Girls in Band-ek kolorez beteriko musika ziragarria eskainiaz ikusentzuleak unkitzeko gaitasuna du. Aldi berean, talde honen helburu nagusietako bat jazzeko historiako emakumeei behar den bezalako omenaldi moduko bat eskaintzea da.

ARAMA JAZZ

Jazzaldiaren bigarren egunak egitarau biziago bat dakar, hori posible bada. Eguneko lehenengo kontzertua Swingpapers seikoteak eskainiko du Aramako parkean, arratsaldeko 6-etan. Seikota hau Musikeneko ikasleek osatua da. Taldea tronpeta, saxofoi altu, tronboi, gitarra, baxu elektriko eta bateriaz osatua dago eta beren kontzertuetan jazz eta swing nahasketa bat eskaintzen dute. Swingpapers Santi Fernández, Laurent Robino, Antonio Tercero, Víctor Antón, Daniel García y Unai Olabarrik osatzen dute.

Jarraian, eszenatokira Eva Fernández Group igoko da. Eva Fernández, urte gutxitan eskarmentu haundia bildu duen artista da eta dagoeneko bere ahotsa jazz munduan izen garrantzitsua hartzen ari da. Eva Fernández, Goierriko jazzaldira izen eta ospe haundiko boskote batekin etorriko da: David Pastor, José Luis Quart, Toni Pagès eta Miquel Angel Cordero. Inolako zalantzarik gabe, aurtengo jazzaldiko ekitaldi interesgarrienetako bat izango da.

Ondoren, jazzaldia Ordiziako Barrena parke-
ra mugituko da, non gaueko 11-etan Elkan
o Browning Cream taldearen kontzertua izan
go dugu. 2007an Elkan Browning Cream-ek
izen bereko diskoa kaleratu zuenetik, talde-
aren ibilbideak ezaugarri hauxe izan du: musi-
kari buruzko ikuspegi ertz askotarikoa; eta
horrela ateratzen dira ñabarduretan aberats
diren diskoak, melodia landuekin eta osagai
erritmiko ahaltsuarekin. Mikel Azpiroz pia-
nista eta organista donostiarrak koordinatuta,
taldea osatzen dute Franck Mantegari bate-
ria-jotzaile paristarrak eta Bartzelonan bizi
den Dave Wilkinson gitarrista britaniarrak.
Aldi berean, nork bere kolaborazioak egiten
ditu beste musikari batzuekin, horien artean
Alpha Blondi, Saint Germain, Brian Jackson

edo Jabier Muguruza. Bagaje horri taldearen
nazioarteko izaera gehituta, emaitza da nor-
tasuna daukan jazz, eklektikoa eta exoti-
koa. 2010ean argitaratu zuten "2" albuma,
lehenengoaren ildotik, eta 2012an
"Bohemia", doinu zingaroz osatutako bitxi
bat, kaleko musikariaren omenezkoa. Orain,
"UH EH"-rekin, nabarmen agertzen dira tal-
dearen heldutasuna eta sendotasuna.

Berritasun moduan, aurten, larunbat gaueko
ekitaldia DJ Makala-ren emanaldiarekin luza-
tuko da. Beraz, Elkan Browning Cream-en
kontzertua eta gero, Mikel Unzurrunzagak
hartuko du Barrenako eszenatokia. Bi ha-
markada luze igaro dira Makala musikaren
munduan murgildu zenetik. Ibilbide horretan
areto ezberdinetako eta irratsaioetako diska
jartzailea, musikari, ekoizle lanetan eta beste
artista batzuentzako nahasketak egiten ibili
da. Gainera, Euskal Herrian zehar ekitaldi
eta kontzertu ezberdinak programatzen eta
antolatzen ere aritu izan da. Hainbat zigilue-
tan argitaratu ditu bere diskoak.

Eta hauxe izango da aurtengo jazzaldiaren
menua. Orain, eseri, edo hobe esan, zutik
jarri, eta Goierriko Jazzaldiaz gozatzeko ga-
raia iritsi da. Ezin aipatu gabe utzi kontzertu
guztiak dohan izango direla. Honetaz gain,
gogoan izan larunbat arratsaldean, antola-
kuntzak Ordizia-Arama-Ordizia bidea egiteko
autobusa jarriko duela nahi duenaren esku-
ra.

Azkenik, eguraldiak laguntzen ez badu, es-
zenatokien aldaketak azken momentuan al-
da ditzakegula. Aldaketa hauen berri, alda-
keta beharrezkoa balitz, ahal bezain laster
jakinaraziko da.

ERREZETA TOMATE BETEAK



Anne Otegi, Aramako Toki Alai
Jatetxea



OSAGAIAK

4 tomate
Tipula
Baratzuria
Piper berdea
Azenarioa
Arroz egosia edo haragi txikitua
Gazta railatua
Olioa, gatza.

PRESTAKETA

Moztu barazki guztiak zati txikitan eta erregosi zartagi batean olio dexenterekin.

Ondoren bota zartagira haragi txikitua eta pixka bat gorritu. Bota gatza.


Arrozaren kasuan, bota zartagira, gehitu gatza eta eman buelta batzuk zaporeak batzeko.

Tomateei goikaldea moztu eta goilara batez hustu.

Bete tomateak zartagiko nahaskiarekin. Tapatu gazta railatua-ekin eta bukatu labean 15 minutuz 180° tara.

Idea: Tomateen barruko haragia txikitu, bota gatza, olio apur bat eta ozpin tanto bat eta apaindu platera saltsa horrekin.

LEHIAKETA



BEHIA
ANTXOA
ELTXOA
GORILA
LEHOIA
UNTXIA
ARRANOA
DORTOKA
IZURDEA
OLAGARROA
AMUARRAINA
KARRAMARROA

Udaletxeko
buzoian sar-
tu zure
erantzuna.

Toki Alai ja-
tetxean 2
lagunentzako
asteburuko
menu baten
zozketan sar-
tuko zara.

8. ALEKO LEHIAKETANIRABAZLEA:

MARIJO ALDASORO

ZORIONAK!!